

Ikerketak ulermen beharrizanak eta balio komunak kontuan hartzen ditu inklusio-praktikarekin konprometitzeko

GIVE proiektuan Zientzia Aplikatuena Häme Unibertsitateak (HAMK-ek) egindako ikerketa lanak, kolektibo zaurgarrien inklusio soziala lortzeko Lanbide Heziketan (LH) berrikuntzan laguntzen dute. Egindako ikerketa horrek, proiektuan aipatutako Inklusioaren bidez Lanbide Heziketaren Bikaintasunerako Erreferentzia Esparrua babesten du. Ikerketak jarraipen sistematikoa egiten du Finlandiako LHren sektoreak (administrazio publikoa, hezkuntza administrazioa eta LHko irakasleak, lan-bizitza eta ikasleak) LHren garapen jasagarrian duen eraginean eta ekarpenean, hau da, LHren inklusioan.

Ikerketaren helburua Finlandiako LHko ordezkarien inklusio pertzepzioak ezagutzea izan da. Hezkuntza inklusioan ematen diren ikerketak eta eztabaidak eskola-testuinguru integratuean kontzentratu dira, hala ere, hezkuntza eta lanbide-heziketako (LHko) ikasleek desabantaila egoera desberdinak eta anitzak jasan ditzakete. Proiektu-taldeak helize boskoitzaren eredu aplikatu zuen LH finlandiarraren aportazioak eta influentziak gainbegiratzeko. Gure datuek 53 ordezkari batu zituen VET finlandiar desberdinei dagozkionak. Inklusio hitzaren inguruan eman zituzten definizioak erdi-egiturazko elkarriketen bitartez burutu ziren. Aurretiazko aurkikuntzak aurreratzen digute inklusio hitzaren definizioa anbigua dela. Administratiboki, inklusioa ideologiarekin erlazionatu zen bitartean, irakasleek hezkuntza bereziko praktikekin erlazionatu zuten. Enpresa munduko ordezkariak inklusioa justizia sozialarekin konektatu zuten eta ikasleek ulermena eta konponbide pertsonalizatuak balioztatu zuten eskola eta lan arloetan. Ikerketak ulertzearen eta partekatutako balioen beharra aztertzen du, inklusio praktikarekin konprometitu ahal izateko. LH sektorea gizarteratzeari eta printzipio inklusiboari buruzko eztabaidez eta prestakuntzez baliatuko litzateke, non ikerketak bultzatzaile gisa funtzionatzen duen.

